

KONTROL MOZIOA

UDAL INSTALAZIOEN LAGAPENETAN EUSKARAREN ERABILERAREN INGURUKOA

Itziar Iturri Arrazola, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako **KONTROL MOZIO** hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2025eko azaroaren 17an Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Euskararen Udal Ordenantzaren arabera, hainbat aldiz batzordeetan eta udalbatzan salatu izan dugun moduan, *“Kultur, kirol eta aisia elkarrekin, pertsona fisikoek nahiz entitate juridikoek, dirulaguntzak eskuratzeko, diruz lagundutako beren jardueretan euskaraz edota euskaraz eta gaztelaniaz egin eta zabaldu beharko dituzte argitalpenak eta ahozko mezu eta adierazpenak. Era berean, ospakizun konkretuetan bozgorailu bidez ematen dituzten mezuak ere euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz eman beharko dituzte. Adierazpenetan, eta batez ere ahozkoetan, euskarazkoari eman beharko zaio lehentasuna”*.

Arau berberak, hurrengo artikuluan dio: *“Udal instalazioak eta materialak erabili ahal izateko ere aurreko puntuan aipatutako baldintzak bete beharko dira. Udalak, beraz, frontoia, hesiak, oholtzak eta zernahi udal instalazio eta material erabiltzeko baimena ematerakoan, hizkuntza baldintza horren berri emango die interesatuei, eta fidantza itzuli baino lehen egin ohi diren egiaztapenetariko bat izango da hizkuntzari buruzkoa ere”*.

Bada euskararen presentzia, Belodromoan gauzatu zen *NorthFit Hibryd* txapelketan, hutsaren hurrengoia izan zen, hitz bakar bat ere ez euskaraz. Atarian zeuden langileek ere ez zekiten euskaraz.

Azaroaren 17ko batzordeetan gai hau landu genuenean Kirolaren eta Bizitza Osasungarriaren zinegotzi delegatuak adierazi zigun hobegarria izan zitekeela jarduera hartako euskararen erabilera; udal instalazioen lagapenetan Donostia Kirolak beti adierazten diela sustatzaileei euskararen erabileraren beharra, baina beti ez dela erraza jarduera guztiak gainbegiratzea. Jakin dutela batez ere ingelesa eta frantsesa izan zirela jarduera konkretu horretan erabili ziren hizkuntzak eta hausnarketa bat egin behar dutela gai hau nola bideratu Donostia Kirolak zuzenean antolatzen ez dituen jardueretan.

Gauzak horrela, behean sinatzen duen zinegotziak honako **KONTROL MOZIO** hau aurkezten du:

- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari euskararen inguruko udal ordenantza bete araztea eta helburu horretarako behar diren bitartekoak jar ditzala, behar izan ezker Euskara Zerbitzuarekin elkarlana indartuz.
- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari udal instalazioen lagapenetan jarraipena egin dezala onuradunek edo sustatzaileek bete beharreko baldintzak betetzen dituztela bermatzeko, tartean euskararen inguruko betebeharrak. Eta hala ezean neurriak har ditzala, bestelako eskakizunak betetzen ez direnean gertatzen den bezala.

Donostian, 2025eko azaroaren 21ean

Itziar Iturri Arrazola
EH Bildu udal taldeko zinegotzia